

Pedro Egiluz Ozerin
Zeberio, Bizkaia

Aurkibidea

Biografia

Zeberioko herriari buruzko azalpenak ematen ditu hainbat abesti zaharrekin batera grabazio honetan.

Zintak

ZEB-011

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Egiluz, Marisa
- **Data:** 2000-02-17
- **Iraupena:** 12 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Egiluz, Marisa

Pasarteak

1. Santa Ageda koplak kantatzen

- **Erref:** ZEB-011/002
- **Iraupena:** 0:05:27. **Hasi:** 00:00:18. **Bukatu:** 00:05:45

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Santa Ageda kantatzen ateratzen ziren eta egun osoa pasatzen zuten etxerik etxe, herri osoan zehar. Ze kantatzen zuten.</p>

Transkripzioa

Santa Ageda kantetan joaten geintzen... noz? Febreruen 4en. Sean da San Ageda, joaten geintzen 4en. Ta etxerik etxe, herri guztiko etxeak, zera, baserri guztiak pasetan goizeko 8etan hasi ta gaueko 12tarte parau barik, kantetan. Ta, bueno, kantetan gendun zera:

Zeruetara begiok altzau
graziak eskatutzeko
Santa Agedak zer pasau zoan
gaur hemen esplikatzeko.

Alkateagaz egondu gera
atzoko arratsaldian
libertadea geurekin degu
ibiliteko bakian.
ezpabe sartu eingo doskula
kartzela ilun batian.

Santu hau preso sartu zanian
zan milagro bat handia
zeruetatik jaitsi zaiozan
Jaungoikoaren argia.

Milagro ikaragarria
santu honen alegria
San Pedrok berak [inguratu] zion
santu honen gorputz guztia.

Berriz enperadoreak diño
eramateko hagana
donzella gazte honen izena
lehen baizen firme debana.

Gorrotoaren indarra
jentilen bihotz gogorra
instante baten estaldu zion
gorputz guztia i odola.

Neure lagunok hasiten jataz
alde banetik tentatzen
hasiko banaz, hasi naitela

nagosiena notatzen.

Zibilio eta granada
Fuenterrabian gerra da,
etxe honetako nagosi jauna
bakeak eiten ara da.

Eder intxaurren kordena
guk halan deuku ordena
etxeko andrea notadutzeko
nagosiaren hurrena.

Etxeko andra onra ona
zeure geuzaren doi ona
Paskua goizean jantziko dezuz
zeure soinean bost gona.

Zuri ta eder azpiko
gorri nabarrok gaiñeko
beste holango pare bat ez dau
plaza bat onradutzeko.

Etxeko andrea parkatu
ondo ez bazera notadu
orain hemendi gura genduka
zaldun gaztea notadu.

Idi zuriak ekarten deude
karabideko otia
etxe honetako zaldun gazteak
topaurik dauko nobia.

Topaurik dauko nobia eta
baturik dauko dotia
hogorlekoak milakadaz da
arreo elegantia.

Zaldun gaztia parkatu
ondo ez bazera notadu
orain hemendi gura genduka
dama gaztea notadu.

Damatxu gazte, garrire linda,
zeure koloren gorria,
kolore horrek diruditzen dau
klabeliñaren orria.

Klabelediñaren orriarekin
larrosa maietzekoa
hementxe gagoz zeuri begira
damatxo bihotzekoa.

Arantza baltzak, ostroa txiki,
puntera deuko loratsu
orain hemendi gura genduka
beste batera bidaldu.

Enero eta febrero
ezin geinkagoz luzaro...

Santa Ageda ez da izaten
beti hilean-hilean,
orain hemendi bagoaz eta
datorren urtera artian.

2. San Juan egunean sororik soro kantari

- **Erref:** ZEB-011/003
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:07:02

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>San Juan egunean sororik soro joaten ziren, kantuan. Orduan abesten zuten kanta: "San Juan bagilean...". Gero, su handi bat egiten zuten. Su hori amatatzen hasten zenean, suaren gainetik saltoka ibiltzen ziren. </p>

Transkripzioa

San Juan egunean joaten gaintzen, galtzu pila bat eskuen hartu, sue emonda, solorik solo; solo guztiak ingurutik pasetan genduzen kanteute:

San Juan bagilean
denpora eder-ederrean
sapoak eta subeak erre
artoak eta gariak gorde.

Gaur dala, biger dala, Doniene
etzi San Juan bidegane
gure soloetan lapurrik ez
badagoz bere erre baitez.

Eta gero eiten genduzen portalean sutaldi handi bat, etxe halango bulto bet, eta hango inguruko barriadako jente guztie hantxe inguruen pareute, ikusten. Eta gero ya apurtxu bet amatetan hasten zanean, saltuke ganetik, batera eta bestera. Lantzean behin igual alkar jo eta jausi surtera barrure, ta erejiak einde, ta... ya esta. Eta gero kantau iten gendun bardin, soloko moduen, bardin:

San Juan bagilean
denpora eder-ederrean
sapoak eta subeak erre
artoak eta gariak gorde.

Gaur dala, biher dala, Doniene
etzi San Juan bidegane
gure soloetan lapurrik ez
badagoz bere erre baitez.

3. "Kalabazak" jaso zituen mutil batek kantatutako bertsoak

- **Erref:** ZEB-011/004
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:07:02. **Bukatu:** 00:08:31

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>San Antonio egunean mutilzakar eta nekazakarrak bikote eske joaten ziren Urkiolara. Mutil batek Zeberioako neska batengandik "kalabazak" jaso ostean kantatu zituen bertsoak.</p>

Transkripzioa

San Antonio egunean joaten geintzen Urkiolara. Bueno, joaten ziran mutilzarrak eta neskazarrak asko, San Antoniori nobioak eskatuten. Ta... egon zan han zer bat, mutil bet, Zeberioko neska batek emon otsenak kalabazak, eta kantau otsezan bertso partida bat:

San Antonio santu handia
Urkiolako mendian
neskatxa batek zer darabila
Zeberioko herrian.

Ilunetako gauzak nahi neunkan
ipintea agirian,
neskatxa batek zer darabila
Zeberioko herrian.

Ni makal samar nengoala ta
joaten ziniaren basora
zeuk izentaute ipinten zendun
alkarregana jokera.

Ene Dominga aztu al jatzu
zelan giniaren egoten
etxe ondoko intxaur azpian
berba gozoak esaten.

Harek intxaurrak baldin baleki
gizona legez berba eiten,
gauzak argiro esango lauka
minagaz isildu zaiten.

Min zorrotza ta malezi asko
aukinigaitik pikuan
zeure txistua iruntsikozu
madaria dalakuan.

Hogeta hiru urte daukazuz
garairik ederrenian
pentsau horregaz hutsik badezu
nogaz egingo zarian.

4. Urkiolako San Antonioren inguruko koplak

- **Erref:** ZEB-011/006
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:08:34. **Bukatu:** 00:09:29

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Bere lagun batek Urkiolako San Antoniori abesten zizkion koplak.</p>

Transkripzioa

Neure lagun batek kantau auzen beste kantziño batzuk San Antoniori:

Urkiolara joan
zapatak urrutu (bis)
Aita San Antoniok, maitia,
barriak eingoitu. (bis)

Askok eiten dotsie
San Antoniori
egun batean joanda, morena,
bestean etorri.

Aita San Antonio Urkiolakoa (bis)
morokile jan eta, morena,
morrosko majoa. (bis)

5. Bilbotik Zeberiora dauden herriak; Zeberio herria eta bizimodu aldaketa

- **Erref:** ZEB-011/008
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:09:34. **Bukatu:** 00:12:06

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Bilbon hasi eta Zeberiora bitartean dauden herriak. Bilbotik Ugaora 13 kilometro omen daude; Zeberio herriak, berak bakarrik, beste hainbeste kilometro omen dauzka. Zeberio handia da lurrez, baina auzoak oso sakabanatuta daude. Lehen ez zegoen ez biderik, ez argirik ez urik... Bizimodua asko aldatu da. </p>

Transkripzioa

Bilbon hasi ta Zeberiorarte dauz herri asko: lehelengoa da Bolueta, bigarrena Bidebieta, hirugarrena Basauri, ta gero Arrigorriaga, ta gero Ugao. Ta danen artiño, danen artiño deukiez 13 kilometro. Ta Zeberio bakarrik deukoz, Ugaoko zubie pasaute Arteararte da Zeberio, 13 kilometro; bardin, Bilbotik Ugaora beste deukoz Zeberio herriak bakarrik. Ta gero dau, ezkerraldetik, ezkerraldeti dau e... Arratiko balle guztie, Galdakao pasau ezkerre, Arratiako balle guztie Arteararte. Eta eskoialdeti dau, Ugao pasau ta gero, dau Arrankudiaga, Arrankudiaga, Areta, ta gero Orozko. Gero Orozko eta... Zeberion bien bitartean dau mendi handi bet, Untzetapiko esaten jakona. Ta gero Untzetapikon hasite Gorbeirarte dau sendero bat, bueno, Untzetapikon hasite, ganikan dago sendero bat Gorbeirarte.

Zeberio da bastante... terrenoz da bastante handie, habitante gitxi, baie dau... osea... terrenoz da handie, baie dau separaute, barriadak. Ba, osea ke dauz barriada batetik bestera igual 10 kilometro edo hamabost. Kamiñotik igual 10 kilometro bidean. Dau... sano separaute. Osea ke dau oso, guztiz separaute. Barriadak asko, baie kasik danak dagoz basoan, mendien, mendien. Ze lehen, barrez, graziek e... edo oin, barrez, graziek dauzela kamiñoa eide kasik barriada guztietan; baie lehen, zerak, estarterik esterta joan behar euen /beauen/ jenteak, ta igual 10 kilometro

kamiñotik e... zera... e... lupetzartetik joan behar zeuen, joan behar zan. Ta oin, barrez, kamiñotik. Lehen baserrietan ez zan egon, baserrietara ez zan egon ez kamiñorik, ez zan egon urik bez, argirik bez, ta ezebez. Lupetza bakarrik. Ta oin dau danerik: argie, kamiñoak eta ure, ta herrien frontoiak eta danerik dao oin. Asko kanbiau de.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com